

AMARAPEDIA: QR KODEEN IPINKETA

Amarapedia Amara auzoa eta Wikipedia uztartzen dituen egitasmoa da, auzoari buruzko ezagutza bildu eta bultzatu nahi duena. **2015**ean abiatu zen, Olatu Talka jaialdian, Donostia Kultura, DSS2016, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzua eta wikilari ezberdinen eskutik, Ernest Lluch Kultur Etxeak koordinatuta.

Berez, Amarapedia Ernest Lluch Kultur Etxeak, eta bereziki bere liburutegiak, indarrean duen **Amarauna** proiektuaren lan-ildoetako bat da. Proiektu honek Amarako iragana eta orainaren ezagutza indartzea, auzoarekin zerikusia duten gaien inguruko eztabaida bultzatzea eta eragile ezberdinen arteko harremanak sendotzea du helburu.

Amarapedia arnas luzeagoko **Donostiapedia** egitasmoaren abiapuntu ere izan da. 2016 urtean Europako Kultur Hiriburuak eta Wikipediaren hamabosgarren urteurrenak bat egiten dutela aitzakia hartuta, Wikipedia-hiri bihurtuko baita Donostia, Amaran auzo gisa landutakoa hiri osora zabalduz.

Amarapediaren helburu nagusia Wikipedian Amarari buruzko **artikuluak** sortzea da, ahalik eta hizkuntza gehienetan, baina bereziki **euskaraz**, Amarapediak euskal Wikipedia indartu nahi baitu ere. Artikuluak wikilari ezberdinek eta kultur etxeko liburutegiak sortuko dituzte.

Gaur egun Amarapedia **113 artikuluk** osatzen dute (hauetako 80 2015eko Olatu Talka jaialdian sortu ziren). Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta baita katalanez, txekieraz, norbegieraz edota polonieraz aurkitu daitezke artikuluak sorta honetan. Hizkuntza gehien dituen artikulua **Urumea** ibaiarena da: 12.

Amarapediak **QR kodeak** erabiliko ditu ere, kaleko gune ezberdinetan kokatuko direnak. Horri esker, telefono adimentsuek hainbat hizkuntzatan izango dute sarbidea Amarari buruzko Wikipediako artikuluetara (eraikinak, pertsonaiak, kaleak, eskulturak, ekipamenduak, zubiak, elizak, plazak, kirola, liburuak...). Modu honetan, auzoa “wikitzen” joateaz gain, amaratarren artean egitasmoa ikusgarri egin nahi da, haien partaidetza proiektuaren ardatz nagusietako bat baita.

Uda honetan jarriko dira lehen QR kodeak, eta horretarako Amarako **jai ezberdinek** aukera bikaina eskaintzen dute auzotarren aurrean egitasmoa auzozteko. Gainera, lehen QR hauen jartzea **jarduera** ezberdinekin lagunduko da, auzoko jai ezberdinen programa aberastuz eta unearen izakera parte-hartzailea azpimarratuz.

Hauek dira kalean QR kodea izango duten lehen **lau artikuluk**:

Aita Donostia
Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainia
Osasun iturria
Iesu Eliza

Aita Donostia

QR kode hau Ikasbide Kultur Elkarteak San Juan egunaren inguruan antolatzen dituen jaiekin batera kokatuko da, Aita Donostia Plazan, ekainaren 18an.

Jarduera

Ekaina 18

Aita Donostiaren omenez piano kontzertua eta errezitaldia
Esther Barandiaran & Javier Sistiaga
Aita Donostia Plaza (Karmelo Ikastetxearen aurrean)
20:00

Esther Barandiaranek Aita Donostiaren piezak interpretatuko ditu pianoan eta Javier Sistiagak Gabriel Celayaren poemak irakurriko ditu gaztelaniaz eta euskaraz.

Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainia

QR kode hau Amara-Osinagako Bizilagun Elkarteak antolatzen dituen Karmengo jaietan kokatuko da, Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainia kalean, uztailaren 16an.

Jarduera

Uztaila 16

“Txokolatearen bidea”
Terranovako Arrantzaleen kalea
Goizean: 11:00-13:00
Arratsaldean: 16:15-18:15

Haurrentzat tailer eta joku ezberdinak, guztiak Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainiarekin lotuta: txokolatada, gymkhana, barku tailerra, etab.

Osasun iturria

QR kode hau Easo Plazan ospatzen diren Amara Zaharreko jaietan jarriko da, plaza horretan bertan dagoen iturriaren alboan, uztailaren 29an.

Jarduera

Uztaila 28-29
“Urarekin marraztuz”
Easo Plaza
28an: 16:00-18:00
29an: 18:00-19:00

Haurrek, puntako materialak erabiliz, zoruan urketari baten irudia, “osasun iturria” izena eta QR kode bat “marraztuko” dute, guztiz ikustezina lehorra dagonean eta bustitzen denean bakarrik agertzen dena. Tailerra Edorta Subijanak diseinatu du.

iesu Eliza

QR kode hau Loiolako Erriberetako Bizilagunen Elkarteak irailan antolatzen dituen jaietan jarriko da, irailaren 17an hain zuzen ere.

Jarduera

Iraila 17
“Altxorraren bilaketa”
Memoriaren Lorategia
16:00

Haurrek pieza ezberdinak aurkitu beharko dituzte. Pieza bakoitzak QR kode baten bitartez soluzionatu daitekeen galdera bat planteatuko du. Pieza guztiak batuta Moneoren elizaren maketa bat osatuko dute, eta bertan eliza honek Wikipedian duen artikulura bideratzen duen QR kodea agertuko da ere. Jarduera Edorta Subijanak diseinatu du ere.

+ Info:

www.donostiakultura.com/amara

https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikiproiektu:Amarapedia-Olatu_Talka_2015

AMARAPEDIA: COLOCACIÓN DE CÓDIGOS QR

Amarapedia es un proyecto que une la Wikipedia con Amara para reunir e impulsar el conocimiento del barrio. Comenzó en 2015, en la edición de ese año del festival Olatu Talka, de la mano de Donostia Kultura, DSS2016, el Servicio de Euskara del Ayuntamiento de San Sebastián y un grupo de wikipedistas, todo ello coordinado por el Centro Cultural Ernest Lluch.

De hecho, Amarapedia es una de las líneas de trabajo del proyecto **Amarauna** que impulsa el Centro Cultural Ernest Lluch desde su biblioteca. Este proyecto tiene como objetivos principales promover el conocimiento del pasado y presente de Amara, el debate de las cuestiones que tienen relación con el barrio y fortalecer las relaciones y colaboraciones entre los diversos agentes del territorio.

Amarapedia ha sido también el punto de partida de **Donostiapedia**, un proyecto que plantea extender a toda Donostia el esquema iniciado en Amara hasta convertirla una ciudad-Wikipedia coincidiendo con la Capitalidad Cultural Europea y el 15 aniversario de la Wikipedia.

En el caso de Amarapedia, el objetivo es elaborar y mejorar **artículos** sobre Amara en la Wikipedia, en diferentes idiomas, aunque muy especialmente en **euskera**, ya que persigue fortalecer la Wikipedia en euskera. Los artículos los crean distintos wikipedistas, así como la biblioteca del Centro Cultural Ernest Lluch.

Actualmente el proyecto Amarapedia está compuesto por **113 artículos** (80 de los cuales se crearon en la edición de Olatu talka de 2015). Hay artículos en euskera, castellano, inglés y francés, pero también en catalán, checo, noruego o polaco. El artículo editado en más idiomas (12) es el dedicado al río Urumea.

Amarapedia utilizará **códigos QR**, que se colocarán en diversos puntos de Amara y que permitirán, por medio de un *smartphone*, acceder a los distintos artículos de la Wikipedia dedicados a Amara (edificios, personalidades, calles, esculturas, equipamientos, puentes, iglesias, deporte, libros...). De esta manera, además de “wikizar” el barrio, se busca también visibilizar el proyecto entre los y las amaratarra, ya que su implicación y participación es uno de los ejes principales de Amarapedia.

Este verano se colocarán los primeros códigos QR, coincidiendo con las distintas **fiestas** organizadas en Amara. La colocación de estos primeros códigos estará acompañada, en esta ocasión, por diversas actividades que se incorporan al programa de las fiestas, para subrayar así el carácter participativo del proyecto.

Los primeros **cuatro artículos** que dispondrán de un código QR son los siguientes:

Aita Donostia
Real Compañía Guipuzcoana de Caracas
La fuente de la salud
Iglesia de Iesu

Aita Donostia

Este código QR se colocará en la Plaza Aita Donostia el 18 de junio, coincidiendo con las fiestas que en torno a la fiesta de San Juan organiza Ikasbide Kultur Elkartea.

Actividad

18 Junio
Concierto de piano y recital en homenaje a Aita Donostia
Esther Barandiaran & Javier Sistiaga
Plaza Aita Donostia (Frente al Colegio Carmelo)
20:00

Esther Barandiaran interpretará al piano varias piezas de Aita Donostia. Estará acompañada de Javier Sistiaga, quien leerá poemas de Gabriel Celaya, en castellano y euskera.

Real Compañía Guipuzcoana de Caracas

Este código QR se colocará en la calle del mismo nombre el 16 de julio, coincidiendo con las fiestas del Carmen que organiza la Asociación de Vecinos de Amara-Osinaga.

Actividad

16 Julio
"Txokolatearen bidea"
Calle Pescadores de Terranova
Mañana: 11:00-13:00
Tarde: 16:15-18:15

Diversos talleres y juegos para niños y niñas, todos ellos relacionados con la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas: chocolatada, gymkhana, taller de barcos, etc.

La fuente de la salud

Este código se colocará en la Plaza Easo, junto a la fuente, el 29 de julio, coincidiendo con las fiestas de Amara Zaharra.

Actividad

28-29 de julio

“Urarekin marraztuz”

Plaza Easo

28 (jueves): 16:00-18:00

29 (viernes): 18:00-19:00

Los niños y niñas que participen en este taller dibujarán en el suelo, utilizando materiales de última tecnología, la figura de una aguadora, la frase “osasun iturria” y un código QR. Todo ello será invisible, y sólo cuando la superficie se moje podrá verse dibujado en el suelo. El taller ha sido diseñado por Edorta Subijana, que también lo impartirá.

Iglesia de Iesu

Este código QR se colocará el 17 de septiembre, coincidiendo con las fiestas que organiza la Asociación de Vecinos de Riberas de Loiola.

Actividad

17 Septiembre

“Altxorraren bilaketa”

Jardín de la Memoria

16:00

Los niños y niñas que participen en este taller deberán encontrar diversas piezas en el Jardín. Cada una de ellas planteará un enigma que podrá resolverse gracias a un código QR. Una vez reunidas, todas las piezas formarán la maqueta de la Iglesia de Iesu, diseñada por Moneo, junto a un código QR que remite al artículo de esta iglesia en la Wikipedia. La actividad ha sido diseñada también por Edorta Subijana.

+ Info:

www.donostiakultura.com/amara

https://eu.wikipedia.org/wiki/Wikiproiektu:Amarapedia-Olatu_Talka_2015